Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Julio Galarta Bengoa*

*Arrasate, Gipuzkoa (1917-2011)*



Aurkibidea

# Biografia



Aita Aretxabaletako Arienza baserrikoa eta ama Garagarza auzokoa zituen. Julioren gurasoak San Andres auzoko Etxaburu baserrira ezkondu eta seme bakarra izan zuten. Jaio Zizurkilen egin zen; jaioberria zela Eibarrera joan eta bi urte geroago Arrasatera itzuli ziren. Arrasaten, haurtzaindegian egon zen urte pare batez. Gero beste urte pare bat mertzedaria mojekin egin zituen, eta gero 14 urtera arte eskola publikoan ibili zen. Udaleko beka batekin "maestría" ikasten hasi zen, baina gerrak ikasketok eten zizkion. RONEO lantegiko bulegoan egin zuen lan jubilatu arte. Lantegiko baimenarekin "Arte Ederrak" ikasi zuen Bartzelonan. Margolaria da afizioz, eta hainbat erakusketa egin ditu bai Euskal Herrian bai Katalunian.

# Zintak

## ARR-080

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-07-07
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

## ARR-081

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-07-07
- **Iraupena**: 25 min
- **Euskarria**: MiniDV

# Pasarteak

## 1. Haurtzaindegitik mojetara

- **Erref**: ARR-080/003
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:05:33. **Bukatu**: 00:08:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

**Laburpena**:
Haurtzaindegi antzeko batean egon zen urte pare batez, "Señora Palacios"en zaintzapean. Gero mesedetako mojen eskolara joan zen, zortzi urtera arte.

## 2. Erdarak ematen zizkion arazoak

- **Erref**: ARR-080/004
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:08:46. **Bukatu**: 00:12:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Mojen eskolatik "Don Lucio Portillo"renera joan zen, 14 urtera arte. Eskola denak erdaraz jaso zituen. Erdara ahoskatzeko arazoak izaten zituen.</p>

## 3. Jolasleku ugari

- **Erref**: ARR-080/005
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:12:24. **Bukatu**: 00:13:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
"Kalistruetan" (klaustroa), elizpeetan eta Zentro Katolikoan egiten zuten jolas. Pilotan tantoa egiten zuenari xemaikoa ematen zion galtzaileak. Futbola eta pilota ziren jolas nagusiak.

## 4. Antzerkizalea eta koruko abeslaria

- **Erref**: ARR-080/006
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:13:46. **Bukatu**: 00:16:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena**:
Zazpi urterekin koruan sartu zen, musika ikasi eta soprano ahotsarekin abestera. Berrogei urtera arte egon zen koruan. Gaztetan antzerkietarako atzealdeak margotzen zituen. Txinatarren istorioak antzezten zituzten. Eskolatik goiz irteten zuten, eta Santa Barbara parkera joaten ziren jolastera.

## 5. Mutikotako kontuak

- **Erref**: ARR-080/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:16:16. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
<p>Kuadrillako "kapitaina" Modesto Otadui zen. Ganaduak zaintzen laguntzen zioten, eta gero txakolina edaten zuten ezkutuan, infernuko istorioak kontatzen.</p>

## 6. Zizurkilen jaio zen Julio

- **Erref**: ARR-080/008
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:21:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Krisialdi baten ondorioz, gurasoak Zizurkil aldera joan ziren lan bila, eta bertan jaio zen Julio. Bera jaioberria zela, Eibarrera joan zen familia, baina laster itzuli ziren Arrasatera, Resusta kalera. Gerraostean Erdiko kalera aldatu ziren.

## 7. Industria maisutza ikasten

- **Erref**: ARR-080/009
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:21:33. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena**:
Biteri eskolan margotzen ikasi zuen, eta Udalaren beka baten bidez industria maisutza ikasi ahal izan zuen. Bergarara joaten ziren azterketak egitera.

## 8. Gerrak ikasketak eten betirako

- **Erref**: ARR-080/010
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:25:35. **Bukatu**: 00:29:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
<p>Ikasketen azkenengo mailan zeudela, gerra hasi zen eta betirako eten ziren ikasketok. Eskolako praktikak egitera Bergarara joaten ziren. Portillo irakaslearen eskola non zegoen azaltzen du.</p>

## 9. Arrasaten fusilatutako abadeak

- **Erref**: ARR-080/013
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:34:55. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gerra denboran, Iruñera eraman zuten soldadu. Arrasaten fusilatu zituzten hiru abadeak ezagutzen zituen. Euskaraz irakastea izan omen zen abadeok egindako bekatua. Juliok eskolan zegoela jakin zuen abadeak atxilotu zituztela.

## 10. Musikarako zaletasun handia

- **Erref**: ARR-080/015
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:39:05. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena**:
Txistularia ere bada Julio. Txistu eta koru entseguek denbora asko hartzen zioten. Mendizalea ere beti izan da.

## 11. Gerran Arrasaten hildakoak

- **Erref**: ARR-080/016
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:41:58. **Bukatu**: 00:44:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

**Laburpena**:
Gerratik libratu zen, ikusmena mugatua zuelako. Arrasaten geratu zen, eta bertan hildakoak oroitzen ditu.

## 12. Iruñera soldadu

- **Erref**: ARR-080/017
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:44:20. **Bukatu**: 00:48:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

**Laburpena**:
Arrasateko falangista-talde batean parte hartu zuen hilabete batzuetan. Gero Iruñera joan zen soldadu.

## 13. Teruelgo frontetik Mahonera

- **Erref**: ARR-080/018
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:48:09. **Bukatu**: 00:51:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Iruñetik Teruelgo frontera bidali zuten. Gerra bukaeran, Mahongo irlara bidali zuten. Eta handik Iruñera etorri zen berriro.

## 14. Iruñeko kartzelan eskribau lanetan

- **Erref**: ARR-080/019
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:51:30. **Bukatu**: 00:52:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lanbideak » Beste batzuk

**Laburpena**:
Iruñean eskribau jardun zuen, presoen izenak eta datuak hartzen.

## 15. Sevillako katedralean kantari euskalduna

- **Erref**: ARR-080/020
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:52:53. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Teruelen elurra zen, eta hotzak jota gaixotu zenez, baja eman zioten. Bajan zegoela, Zaragozara eta Sevillara eraman zuten. Sevillako katedraleko koruan Aretxabaletako lagun batek kantatzen zuen.

## 16. Ciudad Realen soldadu

- **Erref**: ARR-080/022
- **Iraupena**: 0:05:52. **Hasi**: 00:56:08. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena**:
Gerra denboran, bere ibileren egunkaria idatzi zuen, eta margoak ere egiten zituen. Gerra bukatu eta gero, Ciudad Realen egon zen soldadu. Hango ardandegi batean euskaldun artean egiten zituzten ezkailu-janak gogoratzen ditu. La Manchako ardo ederra edaten zuten.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-12-13*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com